

- 1) Ez gara luzatuko, ez, \_\_\_\_\_.
  - a. **laster batean amaituko dugu.**
  - b. presaka bukatuko dugu.
  - c. lasterka bukatuko dugu.
  
- 2) Ez zen batere lan zaila; \_\_\_\_\_ amaitu nuen.
  - a. **aitaren batean**
  - b. arineketan
  - c. abiada handiz
  
- 3) Ez deritzozu denbora asko behar dela hori egiteko?
  - a. **Bai zera! Aitaren batean egiten da!**
  - b. Noski baietz, gehiegi!
  - c. Baietz izan!
  
- 4) Lehertu beharrean nago! *Nola esan daiteke beste era batera?*
  - a. **Lehertzeko zorian nago!**
  - b. Lehertzeko gogoekin nago!
  - c. Lehertzeko irrikan nago!
  
- 5) Lehen oso pertsona alaia zen, baina gizona hil zitzaionez gero \_\_\_\_\_.
  - a. **behea jo du.**
  - b. hondoratuta dago.
  - c. bereak egin du.
  
- 6) Norbaitekin zer eginik ez daukazula adierazteko:
  - a. **Jai dut horrekin.**
  - b. Libre nago horrekin.
  - c. Bost axola hori niri.
  
- 7) Etxetik atera eta ahoa bete hortz gelditu zen. Izan ere, gutxien espero zuena gertatu zen: \_\_\_\_\_.
  - a. **Alaba norekin eta alkatearekin ikusi!**
  - b. Alaba alkate berarekin ikusi!
  - c. Alaba alkatea berarekin ikusi!
  
- 8) Giro informalean zaudela, batere gustuko ez duzun zerbait gertatzen zaizunean:
  - a. **Kaka zaharra!**
  - b. Amaitu da!
  - c. Auskalo!
  
- 9) Berak egin badu, zaude lasai, \_\_\_\_\_.
  - a. **larrutik pagatuko du.**
  - b. gogotik eskatuko diot.
  - c. bere eskutik eman beharko du.
  
- 10) Hori esan baduzu, bete egin beharko duzu; alegia \_\_\_\_\_.
  - a. **hitzari eutsi.**
  - b. hitza gorde.
  - c. esanak esan.

- 11) Gauza jakina da hori, logikoa, \_\_\_\_\_.
- begi-bistakoa**
  - behin-behinekoa
  - nahi eta ezinezkoa
- 12) Oheratu aurretik kafea edan nuen, eta gau osoan \_\_\_\_\_.
- ez dut begirik batu.**
  - lozorroan egon naiz.
  - betazalak itsasi ezinik egon naiz.
- 13) *Zein da esaldi honen esanahia?* Ez zuten gure aholkua aintzakotzat hartu.
- Ez zieten gure esanei jaramonik egin.**
  - Ez ziguten guztiz ongi ulertu aholkatu geniena.
  - Ez ziguten aurpegira begiratu ere egin.
- 14) Behin bakarrik esango dizuet; beraz, \_\_\_\_\_.
- adi egon.**
  - kargu egin.
  - kontu eman.
- 15) Inoiz ez ziren ongi moldatu Mikelekin. Izan ere, \_\_\_\_\_.
- begitan hartua zeukaten.**
  - begiko zuten.
  - begiz jota zeukaten.
- 16) Errukirik gabe egiten zuten lan. *Bestela esan:*
- Oso langileak ziren.**
  - Gogo handirik gabe egiten zuten lan.
  - Oso alferrak ziren.
- 17) Gautxori galanta duzu hori: \_\_\_\_\_ sentitzen da ondoen.
- gaueko ordu txikietan**
  - gaubeilan
  - gaueko ordu altuetan
- 18) Hobe beharrez egin zuen. *Bestela esanda:*
- Asmorik onenaz egin zuen.**
  - Hobeki egin zuen.
  - Behartuta egin zuen.
- 19) Badu patxada Andonik! *Aukeratu erantzun egokia.*
- Bai, horrelako gibel handirik ez dut sekula ikusi!**
  - Ez daki, ez, geldi egoten.
  - Bai zera! Gibelak ere bai!
- 20) Barkatu, baina ezingo dizut egin nahi duzuna, \_\_\_\_\_.
- galtzak bete lan daukat.**
  - toperaino nago lanetaz.
  - oso lanpetua daukat.

- 21) Zoria aldekoa izan duzu. *Zein da esaldi horren baliokidea?*
- Kukuak jo dizu.**
  - Noraezean ibili zara.
  - Ezikusiarena egin duzu.
- 22) Partida batean, etxekoek jokaldi on bat egitean:
- Hori duk eta!**
  - Horiek komeriak!
  - Horrelakorik!
- 23) Zerbait askotan esan duzula adierazteko:
- Hamaika bider esan dizut!**
  - Hogei bider esan dizut!
  - Ehun bider esana dizut!
- 24) Su-etena heltzear dago. *Esan beste era batera.*
- Armak laster isilduko dira.**
  - Sua laster itzaliko dute.
  - Ez da sekula bakerik izango.
- 25) Zirt edo zart egin beharrea gara! *Zer esan nahi du?*
- Erabaki bat hartu behar dugu.**
  - Ez aurrera ez atzera geratuko gara, nora jo ez dakigula.
  - Joka hasteko zorian gaude.
- 26) *Zer adierazteko erabiliko zenuke esaldi hau? Ogi gogorrari hagin zorrotza.*
- Gogoz ekin behar zaiela lan zailei.**
  - Alferrak zail aurkitzen duela edozein lan.
  - Lan gogorreki kontu handiz ekin behar zaiela.
- 27) Atzekoz aurrera irakurri du.
- Atzetik hasi eta hasierarantz.**
  - Birritan edo gehiagotan.
  - Gelditu gabe, arnasa batean.
- 28) Lagun edo ezagunen bati kalean agurtu ostean esaten zaiona:
- Goraintziak etxekoei!**
  - Oroitzapenak familiakoei
  - Urte askotarako!
- 29) Zer berri? *Zein da galdera honi dagokion erantzuna?*
- Zaharrak berri!**
  - Ongi esan beharko!
  - Auskalo!
- 30) Zerbait dagoen bezalaxe, ezer aldatu barik utzi behar dela adierazteko:
- Dagoen-dagoenean utzi.**
  - Bertan bego.
  - Bertan behera utzi.

- 31) *Zer adierazi nahi da esaldi honekin? Etorri handikoa zen zure laguna.*
- Hitz egiteko trebetasun handikoa zela.**
  - Bisita ugari egiten zizkigula.
  - Jatorriz familia handikoa zela.
- 32) Hor dago koska.
- Hori da arazoaren muina.**
  - Hara non datorren!
  - Aurkitu dut soluzioa!
- 33) *Zer adierazteko erabiliko zenuke esaldi hau? Hobe beharrean esan nion guztia.*
- Mesede egiteko asmotan esan niola.**
  - Gogorki esan niola.
  - Modu onean esan niola.
- 34) Kokolo baten plantak egiten dituzu klasean beti.
- Klasean kokoloarena egiten duzu beti.**
  - Klasean kokoloa egiten duzu beti.
  - Klasean kokoloarenak egiten duzu beti.
- 35) Ezin dut gehiago, \_\_\_\_\_ ikasteaz.
- kokoteraino nago.**
  - bizkarreraino nago.
  - sudurretaraino nago.
- 36) Okerreko begitik sartu zitzaion.
- Ez zitzaion batere gustatu.**
  - Une txarrean harrapatu zuen.
  - Triste antzean zegoen.
- 37) “Lumatu gabeko txorikumea”.
- Esperientzarik ez duenari esaten zaio.**
  - Etiketikat ateratzen ez denari esaten zaio.
  - Txori jaioberriari esaten zaio.
- 38) Ez dute nolana hiko arazoa esku artean. *Zer esan nahi du?*
- Arazo handi samarra dutela.**
  - Arazo mordoa dutela.
  - Ez dutela oso arazo handia.
- 39) Athletic-ek liga irabazi behar zigula eta azkenean \_\_\_\_\_.
- zakurraren putza.**
  - ahuntzaren gauerdiko eztula.
  - zaharrak berri.
- 40) Norbaiten alde apustu egitean:
- Baietz horrek irabazi!**
  - Horrek irabaz dezan!
  - Horrexek irabaziko duela!

- 41) Asko jaten duen lagunari:
- Ez haiz makala jaten!**
  - Hi jatuna haiz, hi!
  - Makala haiz jaten!
- 42) Aizu, mutiko, nirekin oraindik \_\_\_\_\_.
- zorretan zaude.**
  - zorrak agerian dituzu.
  - zor eta lor zaude.
- 43) \_\_\_\_\_ ez dizut ezer esango eta!
- Alfer-alferrik zabilta,**
  - Alferrik zaude,
  - Oker zaude,
- 44) Berea egin arte \_\_\_\_\_.
- amore ematen ez dutenetakoa da.**
  - ezin zaio lasai ikusi.
  - ez da inon gelditzen.
- 45) Lekutan ibili dira! *Adierazi esanahia.*
- Oso urrun ibili dira.**
  - Leku askotan ibili dira.
  - Oso urruti ez dagoen toki batean ibili dira.
- 46) "Gurekin jai duzu" esaten dizunak \_\_\_\_\_.
- beraiekin zer eginik ez duzula esaten dizu.**
  - bere ondoan barrea eta algara ziurtatzen dizkizu.
  - beraiek ezer ez dakitela ohartarazten dizu.
- 47) Lagun batek esandakoak harrিতuta utzi zaitu. *Zein esamolde ez zenuke erabiliko?*
- Ez dut sinesten.**
  - Sor eta lor geratu naiz!
  - Aitaren eta semearen....
- 48) Horiek hitz-aspertu galantak egiten dituzte elkarrekin. *Zer ulertu behar da?*
- Elkarrizketa luzeak izaten dituztela.**
  - Asper-asper eginda bukatzen dutela.
  - Biziki haserretzen direla.
- 49) Lagun batzuk bazkaltzen ikustean.
- On egin!**
  - Ongi izan!
  - Bazkari on!
- 50) Lehengo bizimodutik gaurkora \_\_\_\_\_.
- ez dago alde makala!**
  - irabazi balu!
  - ez dago alde gutxi!

- 51) Gure mutikoak denetik jaten du; erremolatxa gordina ere \_\_\_\_\_.
- mauka-mauka jaten du.**
  - zirt-zart jaten du.
  - dzanga-dzanga jaten du.
- 52) Sake ona du, gero, mutil horrek! *Zer esan nahi du?*
- Asko jaten duela.**
  - Pilotari ona dela.
  - Ateraldi onak dituela.
- 53) Ume honek txorikumeak adina jaten du. *Zer esan nahi du?*
- Umeak oso gutxi jaten duela.**
  - Umeak ez duela jaten.
  - Umeak txoriek bezala jaten duela.
- 54) Akatsak akats, itxurazko lana egin duzula uste dut.
- Akatsen batzuk baditu ere, ontzat ematen dut egin duzun lana.**
  - Itxurari baino gehiago akatsak ez egiteari begiratu behar.
  - Aurkezpena ona da, baina egin duzun lana akatsez beteta.
- 55) Ederra egin duk. *Nork esaten du?*
- Gaizki-eginen bat aurpegiratzen dizunak.**
  - Mesederen bat eskertu nahi dizunak.
  - Zorionak eman nahi dizkizunak.
- 56) Apal-apal etorri zaigu, \_\_\_\_\_, barkamen eske.
- burumakur**
  - buruaz makurtuta
  - buruarekin makurtuta
- 57) Lagun zirikatzaileari:
- Niri adarrik ez jo, gero!**
  - Ez ilerik hartu!
  - Broma gutxiago!
- 58) Gu ez bezala bizi dira horiek! *Nola bizi dira?*
- Gu baino hobeki.**
  - Gu baino txarrago.
  - Denaren beharrean.
- 59) Baserria erre ondoren ezer gabe geratu ziren.
- Goian zerua eta behean lurra geratu ziren!**
  - Goia eta behea hutsik zutela geratu ziren!
  - Den-dena hutsik geratu ziren!
- 60) Hurrengo kukua ez du entzungo horrek. *Zer esan nahi du esaldi horrek?*
- Laster hilko dela.**
  - Ez dela berehala aberastuko.
  - Laster hartuko duela lo.

- 61) Kaltea izan zitekeena baino txikiagoa izan dela adierazteko:
- Gaitzerdi!**
  - Auskalo!
  - Erdipurdikoa!
- 62) Gure aldean ongi bizi dira horiek! *Zer esan nahi du?*
- Horiek gu baino hobeki bizi direla.**
  - Gugandik hurbil ongi bizi direla.
  - Gure aldamenean ez direla ongi sentitzen.
- 63) Leku ederrean utziko gaituzu, hori esaten baduzu. *Bestela esanda:*
- Lotsagarri utziko gaituzu.**
  - Urrun utziko gaituzu.
  - Leku egokian utziko gaituzu.
- 64) Ez dute nolana hiko arazoa esku artean. *Zer esan nahi du?*
- Arazo handi samarra dutela.**
  - Ez dutela oso arazo handia.
  - Arazo mordoa dutela.
- 65) Oso pozik zaudela adierazteko:
- Pozaren pozez bizi naiz.**
  - Zein pozik bizi naiz!
  - Ez naiz pozarren bizi.
- 66) “Zozoak beleari ipurbeltz” esaeraren parekoa da honako hau:
- Astoak mandoari belarri luze.**
  - Tximinoak hartzari tripa handi.
  - Txoriak arrainari ipurdi hotz.
- 67) Ganbara pipiak jota du horrek. *Zer esan nahi du?*
- Burutik eginda dagoela.**
  - Ganbara zahartuta duela.
  - Ganbara berritu behar duela.
- 68) Usteak erdi ustel. *Noiz esaten da normalean?*
- Gauzak uste ez bezala ateratzen direnean.**
  - Norbaiten iritzia zuzena ez dela esateko.
  - Ustez, zerbait erdi ustelduta dagoenean.
- 69) Berrogei kilometro egingo nituzke oinez.
- Mila duro ezetz!**
  - Mila duro ezetzari!
  - Mila duro ez egin!
- 70) Lehengoarekin ere badut nik autorik asko. *Zer dio esaldi honek?*
- Daukadan autoa nahikoa dudala.**
  - Lehendik auto asko neuzkala.
  - Lehenagoko autoak askoz gehiago zirela.

- 71) “Hi bizi haiz hi! *Nori esango zenioke esaldi hau?*  
a. **Patxadatsuari.**  
b. Istripu larri batetik atera berri den adiskideari.  
c. Lanez gainezka bizi den lagunari.
- 72) Ez dut ariketa bakar bat ere egin. *Aukeratu erantzun egokia.*  
a. **Alferra halakoa!**  
b. Alfer-alferra!  
c. Alfer-alferrik!
- 73) “Badatoz Xabi-eta”. *Aukeratu erantzun egokia.*  
a. **Garai onean!**  
b. Bazen denbora!  
c. Denbora onean!
- 74) Lagunekin parranda ibili eta \_\_\_\_\_ etorri zitzaigun etxera.  
a. **hirurak jota**  
b. hiruretan jota  
c. hiruretan pasa
- 75) Hel diezaiogun gaiari. *Beste era batera esanda:*  
a. **Goazen harira.**  
b. Jo dezagun iltzea.  
c. Goazen ildora.
- 76) Gaur ere gosaldu gabe etorri naiz. *Zein erantzun ez da egokia?*  
a. **Bazen garaia!**  
b. Ez da izango!  
c. Goizago jaikitzea aski zenuen!
- 77) Zuk, orain, eutsi daukazu eta \_\_\_\_\_.  
a. **gero gerokoak!**  
b. hurrengoan hobeki!  
c. auskalo!
- 78) Hemen duzu zor nizun dirua, orain \_\_\_\_\_.  
a. **kito gaude.**  
b. parean gaude.  
c. garbi gaude.
- 79) “Alferkeria, \_\_\_\_\_”. *Nola bukatzen da esaera zahar hau?*  
a. **askoren hondamendia.**  
b. alferraren leloa.  
c. beti lantsu.
- 80) *Zer esan nahi du honako esaera honek? “Auzoko behiak errapea luze”.*  
a. **Inorenak norberarenak baino hobea ematen duela.**  
b. Gauzei zer diren ez zaiela lehen ikusia antzematen.  
c. Gure albokoa gu baino eskuzabalagoa dela beti.

- 81) Zer esan nahi du? “Ogi gogorrari hagin zorrotza”.
- Arazoei aurre egin behar zaiela kementsu.**
  - Den-denetik jaten ikasi behar dela.
  - Esperientzia guztietatik ikasten dela.
- 82) “Atzoko bileran erabakia hartzea asko kostatu al zen? *Aukeratu erantzun egokia.*”
- Ez, aho batez erabaki zen.**
  - Ez, aho beteka erabaki zen.
  - Ez, ahapeka erabaki zen.
- 83) Laguntza eskatzen diozunean, beti du aitzakiaren bat; badakizu, \_\_\_\_\_.
- alferra beti lantsu.**
  - alferrikakoa da.
  - nagiak ateratzen ditu.
- 84) Euskal Herrian ekonomia gaizki dago, baina Alemanian ere ez dago hobeki.
- Han ere zakurrak oinutsik.**
  - Askoren gaitza zozoen poza.
  - Ez dago gaitzik on gaberik.
- 85) Zure ahaleginak ez du ezertarako balio, \_\_\_\_\_.
- alferrik ari zara!**
  - alferrekoa zara!
  - alfer galanta zara!
- 86) Horrek niri adarra jo? \_\_\_\_\_.
- Baita zera ere!**
  - Nahita ezinezkoa!
  - Ezta batere!
- 87) Ba al zoaz? Ba, \_\_\_\_\_.
- eskuimuinak etxekoei!**
  - oroitzapenak etxekoei!
  - oroiminak etxekoei!
- 88) Izan al zineten atzoko jaialdian? *Zein ez da zuzena?*
- Bai egon ginela!**
  - Bai, horixe!
  - Jakina!
- 89) Zerbaitekin bat ez zatozela adierazteko:
- Bai zera!**
  - Ezta ere!
  - Bai, gero!
- 90) Gure txakurra kamioiak harrapatu ez duenean! *Aukeratu erantzun egokia.*
- Justu-justu atera da, hortaz!**
  - Lapurra halakoa!
  - A, harrapatzea nahi zenuen!

- 91) Ez dakizu nolako arkakusoak geneuzkan kuartelean!
- Haiek arkakuso puskak!**
  - Hala-nolako arkakusoak!
  - Nolanahiko arkakusoak!
- 92) Itzultzailea nor den eta zer itzuli duen jakinda, eta harridura erakusteko:
- Nork eta aita Bizentek *Kamasutra* euskaratu!**
  - Aita Bizentek berak euskaratu du *Kamasutra*!
  - Aita Bizente izan da *Kamasutra* euskaratu duena!
- 93) Nik egindako kaltea ordaintzen ari dela? *Aukeratu erantzun egokia.*
- Zakurraren putza!**
  - Makina bat halakorik!
  - Ordaindu, gero!
- 94) “Baso hartako haritzak ez dira txikiak”. *Aukeratu erantzun egokia:*
- Ez, ez dira makalak!**
  - Ez, ez dira petralak!
  - Ez, ez dira noranahikoak!
- 95) Ez dizudala nahikoa ordaindu?
- Esatea ere!**
  - Esan, gero!
  - Hori esan behar!
- 96) “Ba al dakizu non dagoen Anton?”. *Aukeratu erantzun egokia.*
- Auskalo non den!**
  - Arraioa non den!
  - Baten batek badaki non den!
- 97) Eta \_\_\_\_\_ edan nuen basokada handi bat ardo.
- danga-danga**
  - danba-danba
  - zarra-zarra
- 98) *Tabernan bazkaltzen ari direnei esateko, zein da egokia?*
- On egin!**
  - Ongi egin!
  - Ongi bazkaldu!
- 99) Harean parean jarri eta, \_\_\_\_\_, bi muturreko eman nizkion!
- zirt-zart**
  - di-da
  - dilin-dalan
- 100) Hartzen duzun erabakia hartzen duzula, niri \_\_\_\_\_.
- bost axola!**
  - hor konpon!
  - utikan!

- 101) Maila arrunteko esaldiak dira denak, bat ezan ezik. *Zein?*
- Jainkoa, luzakor bada ere, ez da ahazkor.**
  - Hura gizon alea!
  - Atsoarekin noa afaritara
- 102) Jan eta jan besterik ez du egiten denbora guztian.
- Sekulako sakea dauka.**
  - Sabelzorriak ditu.
  - Mahuka ona du.
- 103) Han geratu zitzaigun autoa, \_\_\_\_\_.
- ez aurrera ez atzera.**
  - parada ederrean.
  - porrot eginda.
- 104) Ez axola adierazteko:
- Axola gutxi niri!**
  - Hamaika ardura dit!
  - Piper bat axolatzen nau!
- 105) Ebakuntza egin behar diote aitonari, baina \_\_\_\_\_ ongi aterako da.
- jainkoa lagun**
  - jainkoarren
  - jainkoarekin bat
- 106) Futbolari fina da, langile hutsa: \_\_\_\_\_.
- Baloia non, bera han**
  - Jokaldia nolakoa, bera halakoa
  - Balorik baloi ibiltzen da beti
- 107) Adarra jo nahi digute, baina ez diegu \_\_\_\_\_ barre egiten utziko.
- gure lepotik**
  - gure gain
  - gure kontu
- 108) Apustu zentzua emanaz, zein da zuzena?
- Lepoa jarriko nuke horrek ez duela ezertxo ere.**
  - Apostatako nuke horrek ez duela zentimorik ere.
  - Ziurtatuko nuke horrek ez duela txakurrandirik ere.
- 109) Eskolara ez joatea da \_\_\_\_\_.
- sasieskola egitea.**
  - piperra egitea.
  - kale egitea.
- 110) Bihar pilota-partidua jokatuko dute Koldok eta Felixek.
- Baietz Koldok irabazi!**
  - Bai Koldok irabaziko duela!
  - Bai irabazten duela Koldok!

- 111) Zeregin asko, lan asko dagoela edo egiteko dela adierazteko:
- Galtzak bete lan**
  - Leporaino lan
  - Behar beste lan
- 112) Galtzak bete lan du. *Zer esan nahi du?*
- Zeregin ugari dituela.**
  - Gizon baten moduan jokatzeko duela.
  - Galtzak konpontzeak lana ematen diola.
- 113) ..... gure proposamena: hamabost eguneko oporraldia.
- Hona hemen**
  - Hara han
  - Izan bedi
- 114) Ez deritzozu denbora asko behar dela hori egiteko?
- Bai zera! Aitaren batean egiten da!**
  - Bai noski, zenbat nahi.
  - Noski baietz, gehiegi.
- 115) Ez gara luzatuko, ez, \_\_\_\_\_.
- laster batean amaituko dugu.**
  - presaka bukatuko dugu.
  - lasterka bukatuko dugu.
- 116) Lehertu beharrean nago! *Nola esan daiteke beste era batera?*
- Lehertzeko zorian nago!**
  - Lehertzeko irrikan nago!
  - Lehertzeko gogoekin nago!
- 117) Konpoketa hauek ez dira behin betikoak, \_\_\_\_\_.
- behin-behinekoak baino**
  - aldizkakoak baino
  - inoizkoak baino
- 118) Zertan zabilta hor? *Aukeratu erantzuna.*
- Hementxe, umeak noiz irtengo.**
  - Hemen nago, umeak noiz irteteko zain.
  - Hementxe, umeen irteera zain.
- 119) Istripu larria izan eta \_\_\_\_\_ egon zen hilabete batez.
- hiltzerian**
  - gaixorik
  - hiltzekotan
- 120) Basamortuan zeudela, urik gabe gelditu eta \_\_\_\_\_ hiltzear egon ziren.
- egarriaren egarriaz**
  - egarririk ezagatik
  - egarri baziren ere

- 121) Gasteiz eta Iruñea Arabako eta Nafarroako hiriburuak dira \_\_\_\_\_.
- hurrenez hurren**
  - respektiboki
  - eskuarki
- 122) *Osasun arrazoiengatik ongi ez dagoen pertsonaren egoerari nola esaten zaio?*
- Ondoeza**
  - Egonezina
  - Onginahia
- 123) Ez zuen etorri nahi, baina azkenean, \_\_\_\_\_ bada ere, etorri da.
- gogoz kontra**
  - gogogabetuta
  - gogorik ezean
- 124) Ezagutzen dituzu Miren eta Aloña?
- Ezagutuko ez ditut, ba!**
  - Ezagutzen ez ditut, ba!
  - Ez ditut ezagutuko!
- 125) Non eta Madrilen topatu behar! *Beste era batera:*
- Madrilen topatzea ere!**
  - Beti egiten dugu topo elkarrekin, eta Madrilen ere bai.
  - Ez genuen Madrilera joan behar, baina joan ginen.
- 126) Zein ez da zuzena?
- Zein leloa zara!**
  - Zeinen leloa zaren!
  - Zein leloa zaren!
- 127) Horrek jakinaren gainean esaten ditu gauzak. *Bestela esanda:*
- Zer dioen ongi dakiela esaten ditu gauzak.**
  - Jakintsu guztiek baino gehiago daki.
  - Jakin ez, baina esan esaten ditu gauzak.
- 128) Hizketan, zure iritzia edo ustea azaltzen hasteko modua:
- Hara,.....**
  - Hona hemen,.....
  - Harira,.....
- 129) Joxe zuenetik hurbil bizi al da?
- Bai, atez ate bizi gara.**
  - Bai, ate batetik bestera gaude.
  - Bai horixe, lekutan gaude!
- 130) Jar ezazu interes handiagoa gauzak egitean, \_\_\_\_\_.
- dena desgogora egiten duzu-eta.**
  - beti zaude gogoetan.
  - ez ezazu burutik egin.

- 131) Ehiztariak \_\_\_\_\_ ari ziren.
- danba-danba**
  - pum-pum
  - pum-pam-pum
- 132) \_\_\_\_\_ egin dezagun horrela!
- Tira ba!**
  - Noski bai!
  - Behiala
- 133) Horrek lehengo lepotik du burua. *Zer esan nahi du?*
- Ez dela pentsaeraz aldatu.**
  - Ez duela gauza berririk ikasi.
  - Ez duela bururik galdu.
- 134) Norbaiten etorreragatik poza adierazteko, zein ez zenuke erabiliko?
- Horrek ere etorri beharra zeukan!**
  - Hara nor etorri den!
  - Etorri da, alajaina!
- 135) Gogozko tokian aldaparik ez.
- Egiten dena gustura egiten bada, ez da lana.**
  - Gauza guztien ondorioek ez daukate probetxurik.
  - Amets hutsak direnek ez dute zailtasunik.
- 136) Haizea nora, zazpiak hara.
- Egoeraren arabera iritziz edo pentsamoldez aldatzen denean.**
  - Gizaki guztiok ezberdin gara.
  - Haizea dabilenean ez dago lan egiterik.
- 137) Zahar hitz, zuhur hitz.
- Edadetuen hitzak irakaspén suertatzen dira.**
  - Zahar guztiak xuhurrak dira.
  - Zaharren hitzak, zikotzen hitzak.
- 138) Geroa, alferraren leloa.
- Alferrak gerorako uzten du lana.**
  - Etorkizunean ez da nagirik izango.
  - geroa, bukatzen ez den soka.
- 139) Etxean otso, kalean uso.
- Kanpoan eder, etxean beltz.**
  - Etxean ezin egon denean, kanpoan egon behar.
  - Etxeari oso lotuta dagoena kanpoan gaizki moldatzen da.
- 140) Tximinoa gorago eta uzkia ageriago.
- Handikiro jokatu nahi denean, barregari gelditzen da.**
  - Guztiok ditugu akatsak.
  - Ez du izenak izana egiten.

- 141) Haritz eroriari orok egur.
- Norbait egoera larrian dagoenean, hari etekinak atera.**
  - Seguru egon arte, ez dago ezer egiterik.
  - Zuretzat nahi ez duzuna ez iezaiezu besteei eman.
- 142) Sasi hutsa ez da zutik egoten.
- Lan egiteko jan behar da.**
  - Arazoak ez dira bakarka etortzen.
  - Gaizki jokatu duenak berdin segituko du.
- 143) Nagusi askoren astoa, goseak hil.
- Pertsona askoren ardurak ez du atarramendu onik izango.**
  - Lan txiki batean pertsona asko aritzea alferrikako lana da.
  - Guztiona dena lehertu arte erabiltzen dugu.
- 144) Ez da beharra bezalako morroirik.
- Premia bezalako akuilurik ez dago zerbait egin behar denean.**
  - Beharrak morroi izatea sortzen du.
  - Morroiak ez du jabeak bezainbeste lan egiten.
- 145) Gizon buru zuri, oilanda zale.
- Zaharrak neska gazteak gustuko ditu.**
  - Adineko pertsonak jatun handiak dira.
  - Pertsona zuriek beti maltzur jokutzen dute.
- 146) Ikasi du zaharrak, erakutsita beharrak.
- Bizi izanak irakarsi dio zaharrari.**
  - Bizitza osoa ikasten ematen dugu.
  - Zaharren jakinduria ez daukagu galtzerik.
- 147) Zuri guztiak ez dira irinak.
- Nahiz eta hori eman, gauza guztiek ez dute berdin balio.**
  - Irainek ez dute berdin mintzen.
  - Pertsona guztiak ez dira faltsuak.
- 148) Egarrri dagoenari ur lohirik ez.
- Beharra duenari behar duena eman behar zaio.**
  - Arerioari ezta urik eman ere.
  - Gordinkeriak esatea ez da komenigarria.
- 149) Guztien gogora egitea da gauza nekea.
- Guztien nahiak betetzea ez da gauza erraza.**
  - Guztiek esaten dutena egitea nekagarria da.
  - Gauza guztiak gogoratzea lan nekeza da.
- 150) Abere gaiztoa da gorrotoa.
- Gorrotoak ezin ekar dezake ezer onik.**
  - Hiltzerainoko gorrotoa sentitzen denean.
  - Abere guztiak ez dira fidatzekoak.

- 151) Arian-arian xehetzen da burnia.
- Gauza zailenak ere arituz egin daitezke.**
  - Zerbait egin baino lehenago bi aldiz pentsatu behar da.
  - Pixkanaka-pixkanaka hiltzen ari gara.
- 152) Jaten duten santuekin ez dago fidatzerik.
- Gizakiak garenez gero, ez gara perfektuak.**
  - Mirari gehiegi ez espero sanduengandik.
  - Esatea eta egitea gauza desberdinak dira.
- 153) Burua saldu eta txapela erosi.
- Habia egin deneko, txoria hil.**
  - Eguzkia nora, zapiak hara.
  - Ez du izenak egiten izana.
- 154) Diruak malkarrak zelaitzen.
- Diruak edozein gauza lortzen du.**
  - Dirua barra-barra izatean ona da.
  - Diruak ez du zoriontasunik lortzen.
- 155) Oilo ibiltari azerien janari.
- Behar ez den tokian ibiltzen denari ezbeharrak gertatzen zaizkio.**
  - Lagun asko duenak kontu handiz ibili behar du.
  - Mundua ezagutzea egin beharreko gauza da.
- 156) Sardina bat lan, sardina bat jan.
- Egindako lanaren arabera tajutzen da saria.**
  - Mixeria gorria gutxi lan egitetik dator.
  - Arrantzaleen lana gogorra eta latza da.
- 157) Dagoenean bon-bon ez dagoenean egon.
- Zerbait daukagunean gozatu behar, ez daukagunean konformatu.**
  - Dirua, baliozko gauza guztiak bezala, gorde egin behar da.
  - Zerbait galduz gero, ez dago negar egiterik.
- 158) Bost xentimoko pupua eta hamar xentimoko trapua.
- Ezbeharrak txiki bat dela eta, kexaka eta kexaka aritzea.**
  - Kontuz ibili behar da ondorio txarrik ez pairatzeko.
  - Zauriak ondo sendatzeko baliabide guztiak erabili behar ditugu.
- 159) Eskuko behatzak ere ez zituen jainkoak berdinak egin.
- Guztiok ezberdinak gara eta denetarik egon behar.**
  - Inor ez da perfektu, guztiok ipurtzuloa atzean.
  - Egindako okerren bategatik geure burua zuritu nahi dugunean.
- 160) Jokoa ez da errenta.
- Jokotik ez dago bizimodua ateratzerik.**
  - Egin duenak ordain beza!
  - Jolasa eta jokoa ez da gauza bera.

- 161) Etxeko sua etxeko hautsez estali behar da.
- Etxeko arazoak etxean konpondu behar dira.**
  - Ez dago ezer etxea bezalakorik.
  - Eraso baten aurrean arerioak erabilitako armak erabili behar dira.
- 162) Txoriak ere duen hainbat odol ematen du.
- Izate txikiak ere lan handiak egin ditzakete.**
  - Ezdeusa izan arren, sufritu egiten da.
  - Txikiak ere oso jenio txarrekoak izan daitezke.
- 163) Hontzari, bere umeak eder.
- Norberaren seme-alabak ederrenak direla pentsatzen dugu.**
  - Gurasoak nolakoak, seme-alabak halakoak.
  - Habia prestatuta eduki behar da guraso izan baino lehen.
- 164) Zakur zaunkalaria nekez hozkaria.
- Asko hitz egiten duten pertsonengan ez dago fidatzerik.**
  - Zakur zaunkalariak nekez zaintzen du etxea.
  - Hitzontzi eta ahoberoa denak ez du esandakoaz ezer egiten.
- 165) Nagusiaren begiak gizentzen zamariak.
- Jabeak bere ondasunak diren baino gehiago ikusten ditu.**
  - Gertatutako istorioak zaharrek puzten dituzte.
  - Aiton-amonek jan, lo eta hil.
- 166) Baleki gazteak, baleza zaharrak.
- Gazteak ez du zaharraren jakituria, ezta honek ere gaztearen indarra.**
  - Gazteek ez dakite ezer eta zaharregandik ikasi behar dute.
  - Gazteek begirune zaindu behar dituzte zaharrak.
- 167) Ikasi du zaharrak, erakutsi beharrak.
- Zaharrak dakiena bizitzak irakatsi dio.**
  - Ikasteko ez da inoiz berandu, zaharra izanda ere.
  - Zaharra jakinminez egoten da beti.
- 168) Nagia beti lantsu.
- Alferrak lanpetuta dagoela esaten du lanik ez egiteko.**
  - Beharra dela medio, alferrak ere lan egiten du.
  - Ezin da txapela batez bi buru estale.
- 169) Ardien kulpak bildotsak pagatu.
- Goikoek egiten duten kaltea menpekoek jasan edo konpondu behar dute.**
  - Etxekoen artean konpondu behar dira gauzak.
  - Tontoen artean, tontoenak lan handiago egin behar.
- 170) Zenbat buru hainbat aburu.
- Nork bere iritzia dauka.**
  - Ergel ugari dago gure artean.
  - Bakoitzak xede ezberdinak ditu.

- 171) Kantari txarra beti kantetan dago.
- Zerbait egiten jakin ez eta ondo egiten duela esanez puzten den pertsonari esaten zaio.**
  - Ezin da ezer amaitutzat eman, harik eta ondo ikasi arte.
  - Guztiok pentsatzen dugu zerbait egiteko unean hoberenak garela.
- 172) Agure onari ez atea itxi.
- Edadetuei begirunea zor diegu.**
  - Aitona ez utzi kalean lo egiten.
  - Guztiok zahartuko gara.
- 173) Azeriak buztana jaso ezin eta bai garbia.
- Indarra gauza handia da, baina trebetasuna handiagoa.**
  - Alferrak direnei esaten zaie.
  - Gezurriak direnei esaten zaie.
- 174) Umearen zentzuna, etxean entzuna.
- Etxean egiten dena barneratzen du umeak.**
  - Umeak beti egon behar du etxean.
  - Umeek ez dute zentzurik.
- 175) Ahal dena, itsasoan den arrain hoberena.
- Eskuarteak dugunari eustea da zentzuzkoena.**
  - Itsasoan edozein arrain mota ona da.
  - Besterik ez badago, konformatu egin behar.
- 176) Geroa \_\_\_\_\_.
- alferraren leloa.**
  - hamabost miseria.
  - umeak ikasia.
- 177) Hamalau ofizio \_\_\_\_\_.
- hamabost miseria.**
  - munduko ondasuna.
  - ezer ez baino.
- 178) Esaera zaharrak \_\_\_\_\_.
- gezurrik ez.**
  - gezurra seguraski.
  - gutxitan hozkaria.
- 179) Ezta hurrik eman ere!
- Zerbait asmatu edo jakin ez, arrastorik somatu ez.**
  - Dirurik ematen ez duenari esaten zaio.
  - Urrik ematen ez duen urritzari esaten zaio.
- 180) Inoren eskuaz txingarra atera.
- Beste pertsona batez baliatuz, norberaren arazoak konpondu.**
  - Sua asmatu duela pentsatzea.

- c. Dirua lortzeko asmoz, eskean ibili.
- 181) Horrek abildadea auzoan dauka.
- Bera dagoenean gatza eta piperra ez da falta.**
  - Auzoan artista bat bizi da.
  - Auzoan dagoenean trebea da, soilik.
- 182) Lepahezurra haustea opa dizut.
- Zerbait txarra gerta dakizun opa.**
  - Egun ona pasa dezazun opa.
  - Urte askotarako!
- 183) Kopeta beltza jarri du.
- Haserretu egin da.**
  - Kopeta tolestu du.
  - Ezkonduta egin da.
- 184) Txistu bizian atera da.
- Abiadura handiz atera da.**
  - Lerdea zeriola atera da.
  - Ez da atera.
- 185) Han ere txakurrak oinutsik.
- Toki guztietan berdin.**
  - Leku guztietako txakurrak ez dira berdinak.
  - Ibiltzean zaratarik ez ateratzeari esaten zaio.
- 186) Horrek tripa truk lan egiten du.
- Horrek mantenuaren truk lan egiten du.**
  - Horrek musu truk lan egiten du.
  - Tripakiak maite ditu.
- 187) Horrek aita zuen langile.
- Bere aita ez dakigu baina bera alfer hutsa da.**
  - Giza maila bajua duenari deitzen zaio.
  - Bere aita apaiza da.
- 188) Horrek ahateari igerian erakutsi!
- Asko baleki bezala hitz egiten du beti.**
  - Horrek ez daki igerian.
  - Jakintsua eta azkarra da.
- 189) Egunari berea eman behar zaio!
- Egun bereziak ospatu egin behar dira.**
  - Egun guztiak berdinak dira.
  - Lan egunetan lan egin behar da.
- 190) Jo ta txikitu ez duenean!
- Ia-ia jo eta kasik txikitu du.**
  - Jo eta txikitu egin du.

- c. Ozta-ozta jo eta txikitu egin du.
- 191) On dagizula!
- Jaten denean esan ohi da.**
  - Zintzo portatu!
  - Zuk bost dakizu!
- 192) Hori paper errea da.
- Baliorik ez duena.**
  - Paperari sua eman ondoren esaten dena.
  - Irakurtezina da.
- 193) Ez dit barrenak laguntzen.
- Ez dut gogorik.**
  - Tripako minez nago.
  - Kaka ezin eginik nabil.
- 194) Ez da traste zuzena.
- Idea onik ez duenari esaten zaio.**
  - Tresnaren bat ez dabilela adierazteko.
  - Gauzak gaizki egiten dituenari esaten zaio.
- 195) Hori mozolo pinttoa da.
- A zer nolako alea den hori!**
  - Oso itsusia da.
  - Pertsona aspergarria da.
- 196) Gauerditik salto handirik egin gabe.
- Gaueko hamabiak inguru.**
  - Ordu gutxi lo egin dut.
  - Gauen etxean zaratarik ez.
- 197) Ez da oso betea.
- Ez da batere azkarra.**
  - Oso argala da.
  - Erosketetan lapurtzen denean, esaten da.
- 198) Gai hori puri-purian dago.
- Gaur egun gai horretaz asko hitz egiten da.**
  - Gai hori erabat hutsala da.
  - Gai hori ez da atzo goizekoa.
- 199) Iñakik sake ederra dauka.
- Iñakik entrama ederra dauka.**
  - Iñaki pilotan ona da.
  - Iñaki xakean ona da.
- 200) Horrek astarrak kumea egiten duenerako ikasiko du euskara.
- Horrek ez du sekula ere euskara ikasiko.**
  - Euskara ondo ikasiko du horrek.

- c. Denbora luzez baino euskara ikasiko du.
- 201) Traste guztiak aurrean hartuta agertu zitzaigun.
- Bere traste eta guzti agertu zitzaigun.**
  - Traste guztiak bota eta orduantxe agertu zitzaigun.
  - Trasterik handienak ekarri zituen.
- 202) Bost dakizu zuk!
- Ez dakizu ezer!**
  - Asko dakizu zuk!
  - Aprobatzeko beste dakizu zuk!
- 203) Sudurpean bai zuk indarra!
- Zuk asko hitz egin, baina gero bat ere ez.**
  - Oso indartsua zara eta sekulako giharrak dituzu.
  - Ez duzu indarrik.
- 204) Hori eguzkiaren azpian ez dago.
- Hori ez da.**
  - Hori topatzea zaila da.
  - Horrek ez dauka ez hanka, ez buru!
- 205) Aitari eskatzea dauka!
- Aitari eska biezaio!**
  - Izorra bedi!
  - Badaezpada ere, aitari ez eskatu.
- 206) Beste zakur batek zaunka egingo luke.
- Dena beste modu batez egongo litzateke.**
  - Ez dira oso ondo konpontzen.
  - Beste katu batek miauka egingo luke.
- 207) Gizon horrek uzkerria burduntzian sartuko luke.
- Gizon hori iaioa eta trebea da.**
  - Gizon horrek ez du ezertarako balio.
  - Gizon hori beti uzkerka ibiltzen da.
- 208) Sasi guztien gaintik, hodei guztien azpitik.
- Aztiak eta sorginek erabilitako esaldia.**
  - Eguraldi txarra dagoenean esan ohi da.
  - Ez dago salbaezina den oztoporik.
- 209) Atzamarra bada, eskua esan.
- Ahoberokeriak esaten ditu.**
  - Gezurri hutsa da.
  - Atzamarra nola esaten den ere ez daki.
- 210) Urak dakarrena urak daroa.
- Gauzak etortzen diren moduan joaten dira.**
  - Gauzak okertuz joan.

- c. Urak egingo du bide
- 211) Ferra berriak erantsi dituzte horiek
- a. **Bizkorragotu egin dira.**
  - b. Sekulako abiaduran etorri dira.
  - c. Zaldi berria erosi dute.
- 212) Atrebentziz, nongoa zara?
- a. **Ausardia handia bada ere, nongoa zara?**
  - b. Nongoa zaren jakin nahi dut.
  - c. Lehenengo eta behin, nongoa zara?
- 213) Umeak aurrean hartuta aldegin zuen.
- a. **Ume eta guzti aldegin zuen.**
  - b. Umeak aurrean jarri eta aldegin zuen.
  - c. Umeak akatu zituela aldegin zuen.
- 214) Entrama ederra daukazu.
- a. **Sake ederra daukazu.**
  - b. Nahaste-borraste ederra daukazu.
  - c. Ez duzu ideiarik ere.
- 215) Horrek burua lehengo lepotik!
- a. **Horrek igual segitzen du.**
  - b. Oso memoria txarra du.
  - c. Oso pertsona jakintsua da.
- 216) Kukutik kukura egiten dugu.
- a. **Gutxitan egiten dugu.**
  - b. Ez dugu inoiz egiten.
  - c. Zorte txarra izan dugu.
- 217) Sits eta bits jan genuen.
- a. **Bapo jan genuen.**
  - b. Mizkinkeriak edo litxarrerriak jan genituen.
  - c. Ezer gutxi jan genuen.
- 218) Inon direnak esan zizkidan.
- a. **Kristorenak esan zizkidan.**
  - b. Ez zidan ezer esan.
  - c. Ohizko agurrak esan zizkidan.
- 219) Inbidia banatu zenean, zeuk eraman zenuen zakurik handiena!
- a. **Bekaizti hutsa zara.**
  - b. Ez zaizu ezer axola.
  - c. Oso zurekoia zara.
- 220) Hori zer soma dago.
- a. **Hori zerbait asmatzen edo prestatzen ari da.**
  - b. Hori droga bila dabil.

- c. Hori zelatan dago.
- 221) Porru eginda gelditu naiz.
- Neke-neke eginda nago.**
  - Oso pozik gelditu naiz.
  - Itsututa nago.
- 222) Hori ur handitako arraina da.
- Handi-mandia da.**
  - Oso lotsatia da.
  - Oso haserrekoa da.
- 223) Ahoan legarrik gabe mintzatu zen.
- Argi eta garbi mintzo zen.**
  - Totelka mintzatu zen.
  - Ahoa janariz beteta ele egin zuen.
- 224) Urak egingo du bide.
- Horrela gertatuko da, ikusiko duzu.**
  - Urak errepidea izorratuko du.
  - Lasaitasunez jokatu beharra dago.
- 225) Ihiak bezala edaten duk.
- Izugarri edaten duk.**
  - Ezer gutxi edaten duk.
  - Ez duk ezer edaten.
- 226) Aldez edo moldez lortuko dugu.
- Nola edo hala lortuko dugu.**
  - Aise lortuko dugu.
  - Ez dugu lortuko.
- 227) Horiek ilargia labe gainean bizi dira.
- Horiek oso ondo bizi dira.**
  - Horiek oso gaizki bizi dira.
  - Horiek nahi ez bezala bizi dira.
- 228) Hori plaza-gizona da.
- Hori jendearen aurrean ez da kokiltzen.**
  - Oso gizon ezaguna da.
  - Oso pertsona harroa da.
- 229) Aitor esku orotako makila da.
- Aitor edozein egoeratan ondo moldatzen da.**
  - Aitor guztiek jotzen dute errukirik gabe.
  - Aitor oso trebe eta iaioa da.
- 230) Hamaika ikusteko jaiok gara.
- Egoera harrigarri baten aurrean erabilitako esaldia.**
  - Hamaika lagun etorri dira.

- c. Jaio aurretik asko dakite umeeek.
- 231) Ez daukat sosik ere.  
a. **Ez daukat txakur txikirik ere.**  
b. Ez daukat gogorik ere.  
c. Ez daukat lagunik ere.
- 232) Egon hadi horretan!  
a. **Berehala sinestuko diat/dinat! Tira, tira!**  
b. Ez hadi hortik mugi!  
c. Lan eta lan egin ezak/n!
- 233) Gela eran jarri dut.  
a. **Gela egokitu dut.**  
b. Gela zikindu dut.  
c. Gela aldatu dut.
- 234) Hara Txema, aspaldiko partez!  
a. **Hara Txema, aspaldiko!**  
b. Hara Txema, zer moduz?  
c. Hara Txema, astakilo hori!
- 235) Kale egin du.  
a. **Huts egin du.**  
b. Joan egin da.  
c. Asmatu egin du.
- 236) Ganbaratik izorratuta dago.  
a. **Ez dago burutik sano.**  
b. Sekulako buruko minak ditu.  
c. Gerriko minez dago.
- 237) Horrek ez du kolpe zorririk jo.  
a. **Horrek ez du inoiz lanik egin.**  
b. Horrek ez du inor jo.  
c. Horrek ez dio inori hots egin.
- 238) Anaiari bizkarra berotu zioten.  
a. **Anaiari jipoi ederra eman zioten.**  
b. Anaia lausengatu zuten.  
c. Anaiari masajea eman zioten.
- 239) Horrek ez du pikorik ere egin.  
a. **Horrek ez du inoiz lanik egin.**  
b. Horrek ez du inoiz lapurtu.  
c. Horrek ez dauka pikurik.
- 240) Bereak eta asto beltzarenak hartu zituen.  
a. **Astindu ederra eman zioten.**  
b. Oso berekoia da.

- c. Astoari ere janaria lapurtu zion.
- 241) Ez zegoen askoren baitan.
- Oso gutxiren falta zegoen.**
  - Askok ez zuten horrela egin.
  - Denak kanpoan ziren.
- 242) Ez dut gurasoen lepotik bizi nahi.
- Ez dut gurasoen dirutik bizi nahi.**
  - Gurasoekin ez dut inolako harremanik nahi.
  - Ez dut gurasoen ohiturarik onartzen.
- 243) Oiloek txiza egin arte ez naiz lekutuko.
- Ez naiz inondik inora ere lekutuko.**
  - Oiloak atera arte ez naiz lekutuko.
  - Lekutuko naiz baldin eta zuk badiozu.
- 244) Total eginik etorri da.
- Mozkorturik etorri da.**
  - Oso atsegin etorri da.
  - Ederturik etorri da.
- 245) Hagina dabilenean, sabela poz.
- Jaten dugunean, pozik gaude.**
  - Ibiliz gero, pozik gaude.
  - Haginak zuhaitzak dira eta ez dira ibiltzen.
- 246) Itxi ezak sankristiko atea!
- Itxi ezak zirrikitia!**
  - Itxi ezak sakristiako atea!
  - Itxi ezak aho zikin hori!
- 247) Horrek ez dauka malkarrik begietan.
- Hori oso argia da.**
  - Horrek oso ikusmen ona du.
  - Hori oso fina eta iaioa da.
- 248) Gaztako ederra hartu du.
- Kaskarreko ederra hartu du.**
  - Gazta erdia hartu du.
  - Ipurdiko ederra hartu du.
- 249) Mirandek bere buruaz beste egin zuen.
- Mirandek bere burua hil zuen.**
  - Mirandek beste itxura bat hartu zuen.
  - Mirande irudimen handiko gizona zen.
- 250) Tupustean aurkitu nuen.
- Bat-batean aurkitu nuen.**
  - Bere postuan aurkitu nuen.

- c. Kanean bistatu nuen.
- 251) Hori hizpidea jartzen ari da.
- Hori hizketa-gaia ematen ari da.**
  - Hori bronka bila dabil.
  - Horiek hitz egiteko aukera ukatu dit.
- 252) Nik haginak berdindurik ditut.
- Pertsona heldua naiz.**
  - Ahoraino nago.
  - Ez zait hortzik falta, guztiak ditut.
- 253) Horrek lehengo lepotik burua.
- Horrek berdin segitzen du.**
  - Horrek ez du bururik.
  - Pentsakeraz aldatu den pertsona.
- 254) Agurtzane ur handitako arraina da.
- Agurtzane handi-mandia da.**
  - Agurtzane izenez bataiatutako balea da.
  - Agurtzane familia pobreakoa da.
- 255) Goian zerua eta behean lurra bizi da.
- Inolako babesik gabe bizi da.**
  - Guztiok bizi garen bezala bizi da.
  - Zeru eta lurra besterik ez du ikusten.
- 256) Hori nontzeberri hutsa da.
- Hori kuxkuxero hutsa da.**
  - Horri hitz egitea gustatzen zaio.
  - Besteek esaten dutena entzutea gustatzen zaio.
- 257) Bete-betean, Peru atarian!
- Pertsonaren bat aipatu eta huraxe agertu.**
  - Pello garbia da.
  - Peru bete-bete eginda dago atarian.
- 258) Zuk aterik adina maratila daukazu.
- Zuk edozein gauzatarako erantzuna duzu.**
  - Zuk ez duzu inolako ganorarik.
  - Zuk etxe asko daukazu.
- 259) Hori ez da azaren azpian geldituko.
- Horrek jakingo du aurrera egiten.**
  - Hori oso jenio txarrekoa da.
  - Hori ez da inoiz kikilduko.
- 260) Hasten banaiz, hasi egingo naiz!
- Hasiz gero, dena kontatuko dut.**
  - Hasiz gero, ez dugu inoiz bukatuko.

- c. Hasiz gero, ilundu arte hitz egingo dut.
- 261) Hori eta atariko haizea... bat!
- Hori eta hutsaren hurrengoa....bat!**
  - Horrek ez dauka ezer ikusirik.
  - Hori beti etxetik kanpo ibiltzen da.
- 262) Goian bego!
- RIP.**
  - Goian dagoela esan dizut.
  - Bajondeizuela.
- 263) Hortxe nonbait.
- Hala moduz.**
  - Ondoezik dabil.
  - Galdu egin da
- 264) Ez itzazu babak eltzetik atera.
- Ez ezazu gehiegikeriarik esan.**
  - Ez ezazu zurikeriarik esan.
  - Ez ezazu txorakeriarik egin.
- 265) Babak eltzetik atera diezazkioten nahi du.
- Gauzak besteek konpon diezazkioten nahi du.**
  - Janaria besteek egin diezaioten nahi du.
  - Babak atera diezazkioten nahi du.
- 266) Familia horrek ilargia labe gainean dauka.
- Familia horretakoak oso ondo bizi dira.**
  - Familia horretakoak oso despistatuak dira.
  - Familia horretakoak oso gaizki bizi dira.
- 267) "Jesus Amen" esan orduko kalean zen.
- Berehala kalean zen.**
  - Otoitz egin ondoren, kalea zen.
  - Gogozko tokian aldaparik ez.
- 268) Aparaju ederra zara zu!
- Ale ederra zara zu!**
  - Ikasle ederra zara zu!
  - Alfer galanta zara zu!
- 269) Hemen pagotxa dago.
- Hemen aukera ona dago.**
  - Hemen ez dago ezer.
  - Hemen gogo handia dago.
- 270) Oso pertsona zuria da.
- Oso pertsona faltsua da.**
  - Oso pertsona zurbila da.

- c. Oso pertsona argia da.
- 271) Atzamarra bada, eskua esan.  
a. **Ahobero garbia da.**  
b. Oso xaloa da.  
c. Burubero hutsa da.
- 272) Buru pittin baten jabe bazina.....  
a. **Pixka bat pentsatuko bazenu....**  
b. Bizirik bazeunde....  
c. Animo pixka bat bazenu....
- 273) Neure gain hartuko dut lan hori.  
a. **Lan hori neure kontu.**  
b. Nik ez dut lan hori hartuko.  
c. Esku bete lan nabil.
- 274) Bakoitzak berea jainkoaren legea.  
a. **Norberari dagokiona.**  
b. Norberak jakin behar luke.  
c. Guztiak elkartuta gaude bizitza honetan.
- 275) Ez zaitetz pello izan!  
a. **Ez zaitetz kirtena izan!**  
b. Ez zaitetz egoskorra izan!  
c. Ez zaitetz koldarra izan!
- 276) Gizon horrek aterik adina maratila du.  
a. **Gizon horrek edozein gauzatarako erantzuna du.**  
b. Gizon horrek ez daki zer esaten duen.  
c. Gizon hori oso aberatsa da.
- 277) Horrek ez dauka atarramendu onik.  
a. **Horrek ez du ezer garbirik aterako**  
b. Horrek ez du ideia onik  
c. Horrek ez du lurperatze onik izan
- 278) Hori hutsaren hurrengoa da.  
a. **Hori eta atariko haizea....bat!**  
b. Hori balio handikoa da.  
c. Horrek gezurrak besterik ez du esaten.
- 279) Goseak amorratzen nago.  
a. **Goseak ebakita nago.**  
b. Oso haserre nago.  
c. Ez naiz gose.
- 280) Belea egondako hesola baino hobea.  
a. **Ez da gauza handirik, baina ezer ez baino gehiago bada.**  
b. Mutur beltza dena beti mutur beltz.

- c. Oso gauza ona eta handia da.
- 281) Obispo batek bedeinkatu ahala patata jaso du.
- Aurten patata mordoa jaso du.**
  - Aurten patatak jaso ordez, apezpikuak jaso ditugu.
  - Aurten oso patata gutxi jaso dugu.
- 282) Eguna zabaltzean abiatuko gara.
- Eguntsiarekin batera abiatuko gara.**
  - Arratsarekin batera abiatuko gara.
  - Gauarekin batera abiatuko gara.
- 283) Horiek artazuriketako kontuak dira.
- Horiek sinisgarritasun gabeko kontuak dira.**
  - Hori mundu guztiak daki.
  - Horiek egia hutsak dira.
- 284) Irtengo ote da inoiz umepetik?
- Ume horiek ematen dioten lana!**
  - Ez da inoiz heldua izango.
  - Amazulo hutsa da.
- 285) Felipe eltze askotako burduntzaila da.
- Felipek auzi guztietan muturra sartzen du.**
  - Felipek ez du ezer ulertu, ezta ulertuko ere.
  - Felipek idia adar eta guzti jango luke.
- 286) Gu gora behera egingo dute.
- Gurekin edo gu gabe egingo dute haiek.**
  - Gu gorabeherak kontuan harturik egingo dute haiek.
  - Hala moduz egingo dute haiek.
- 287) Badaezpada ere, hilburukoa egin dut.
- Badaezpada ere, testamendua egin dut.**
  - Badaezpada ere, ohea egin dut.
  - Badaezpada ere, hil honetako zorrak kitatu ditut.
- 288) A zer harria daukadan zurekin!
- Zuk bai sufriarazten didazula!**
  - Zuk bai txoratuta naukazula!
  - Zu bai zoratuta zaudela!
- 289) Akerraren adarra baino okerragoa zara.
- Basapizti hutsa eta zeharo ulertezina zara.**
  - Egiten dituzun gauzak zeharo ulertezinak dira.
  - Oso gaiztoa zara.
- 290) Ama, putzu txikian itotzen den horietakoa da.
- Ama edozein arazok kezkatzen du.**
  - Ama oso pertsona ausarta da.

- c. Ama edozein arazo gainditzeko gai da.
- 291) Jakinaren gainean zaude!
- Hori eginez gero, badakizu zer gertatuko den.**
  - Asko dakizu zuk.
  - Zuk bost dakizu!
- 292) Zenbait, ur gaineko bitsetan bizi dira.
- Zenbaitek ilargia labe gainean daukate.**
  - Zenbait ur handitako arrainak dira.
  - Urak dakarrena urak daroa.
- 293) Luze iritzita egon gabe esan zuen.
- Gehiegi pentsatu gabe esan zuen.**
  - Iritsi bezain pronto esan zuen.
  - Egoki zeritzola esan zuen.
- 294) Juan Carlos erregek armonia jarri zuen.
- Juan Carlos erregek iskanbila sortu zuen.**
  - Juan Carlos errege armonia ederrean dago.
  - Juan Carlos erregek luze hitz egin zuen.
- 295) Demetan seinalea jartzea normala ohi da.
- Apostuetan ez da diru guztia jartzen, zati bat baizik.**
  - Gauza guztietan zerbait egin daiteke.
  - Demetan keinuak egitea normala da.
- 296) Jainkoaren izenean izango al da?
- Egindakoak zerbaitetarako balio izango du?**
  - Nahita egingo zuen?
  - Gauza santurik izango al da?
- 297) Aitak demanda egin dit.
- Aitak errieta egin dit.**
  - Aitak galdetu dit.
  - Aitak eskatu dit.
- 298) Handia da horratio!
- Handia da, gero!**
  - Handia da horrela!
  - Txiki samarra da!
- 299) Esku ona duzu.
- Idazkera txukunez idazten duzu.**
  - Edozein etxetarako balio duzu.
  - Astindu ederrak ematen dituzu.
- 300) Arkusunka dabil.
- Doministikuka dabil.**
  - Ariniketan dabil.

c. Hazkura du.